

2007KO MARTXOAREN 29KO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zazpiko martxoaren hogeita bederatzian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi, Inazio Barandiaran Aldasoro, Amagoia Naldaiz Mingo, Xabier Arrasate Aierbe, Gorka Lamy Insausti, Juan Manuel Serna Portugal eta Angel Olaso Villalba.

Igor Sarriegi Zumarraga, Arantxa Zumelaga Agirre eta Kepa Goenaga Alikostes zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak esaten du hutsegitez sartu gabe gelditu dela eguneko gai zerrendan Udal langileen lan baldintzen akordioaren (UDALHITZ) 2007rako eguneraketa eta presazko izaeraz sartzeari planteatzen du.

Osoko Bilkurak onartu egiten du UDALHITZen 2007rako eguneraketa, presazko izaeraz eguneko gai zerrendan sartzeari.

Bestalde, esaten du Alkateak, eta 2 H.A.ko 1 B.U.ko Xehetasun Azterketa gaiaren inguruko zenbait interesatu bertaratu egin direla ikusirik, aurreko akta puntuaren jarraian puntu hau tratatuko dela eta ondoren eguneko gai zerrendako gainontzeko gaiak dauden bezala tratatuko direla.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztzen da 2007ko otsailaren 22an egindako bilkurako akta.

Serna zinegotziak esaten du, galdera eta erreguetako puntuan Fundiciones Lazkao, S.A.ren inguruan berak esandakoa jasotzea nahiko lukeela. Berak esandakoa zera izan zen: ez diohaztela ezezkorik esatera gaia sakon aztertu gabe eta une honetan ez dutela gaiaren behar adinako ezaugaririk.

Salbuespen hau egin ondoren, akta, guztien adostasunarekin idatzita dagoen moduan onartzen da.

II.- 2 H.A.KO 1 B.U.KO XEHETASUN AZTERKETAREN BEHIN BETIKO ONARPENA.-

Alkateak esaten du gaiarekin hasi aurretik idatzi bat irakurriko duela, Udaletxera atzo iritsi zena, eta ondoren etabaidatu den xehetasun azterketarekin lotura zuzenik ez badu ere, ez lukeela nahi norbaitek informazioa ezkututzen ari dela esaterik eta beraz irakurri egingo duela. Jarraian idatzia irakurri egiten du. Idatzi horretan esaten da, besteak

beste, ondoren eztabaidatuko den xehetasun azterketaren guneko, hau da 2 H.A.ko 1 B.U.ko birpartzelazio proiektuan akatsa egin zela pribatua den bide bat publiko bezala kontsideratu zelako. Eta hau horrela xehetasun azterketaren puntuan gai hau tratatzea eskatzen dute. Bertaratu diren interesatuek hitza hartzen dute eta idatzian eskatutakoa eskatzen dute baita ere eta Alkateak erantzuten die idatzian eskatzen dena ez dela gaurko eguneko gai zerrendan dagoen gaian tratatzekoa.

Jarraian Eguneko Gai Zerrendan dagoen gaia tratatzen da, hau da, 2 H.A.ko 1 B.U.ko Xehetasun Azterketaren behin betiko onarpena.

Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 2 Hirigintz Areako 1 B.U. guneko -San Prudentzio Klean- Xehetasun Azterketari 2007ko urtarrilaren 23ko Alkatetzaren Ebazpen bidez eman zitzaion hasierako onarpena. Xehetasun Azterketa hau AUSARTONDO, S.L.k aurkeztu du, Ascunce-París-Ilárraz Arkitektoek idatzitakoa da.

Xehetasun Azterketa hau jendaurrean hogeitun eguneko denboraldian egon da eta epe horretan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Olaso zinegotziak (PP) esaten du gai honen inguruan informazio erabatekorik ez daukala, gutxi gora beherako baldin badu ere, eta abstenitu egingo dela.

Hau honela, Osoko Bilkurak, aldeko 8 botu (EAJ, PSOE), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PP), Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 2 Hirigintz Areako 1 B.U.ko - San Prudentzio Klean- Xehetasun Azterketa hau behin betikoz onartzea erabakitzen du.

III.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

IV.- 2006KO AURREKONTU LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.-

Ondoren, Alkateak 2006ko martxoaren 28ko ebazpen bidez onartutako 2006 ekitaldiko aurrekontu likidazioaren berri ematen du. Likidazio honek 822.468,64 eurotako diruzaintzako gerakin likidoa ematen du. Txerta daitezkeen kreditu-gerakinak berriz 1.935.858,19 eurokoak dira.

Aipatzekoa da baita ere Areria eraikinaren eraikuntzarako Foru Aldundiak agindutako 400.000 euroko dirulaguntza gauzatu gabe gelditu denez, aurtengo urtean finantziazio gisa erabiltzeko moduko baliabidea dela.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

V.- 2007KO AURREKONTUARI EGINDAKO KREDITU TXERTAKETA BIDEKO 1 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETAREN BERRI EMATEA.-

Jarraian 2007ko martxoaren 28ko datuz Alkatetzaren Ebazpen bidez onartutako 2007ko aurrekontuari egiten zaion Kreditu Txertaketa bidezko 1 Zbk.dun Kreditu Aldaketa-

ren berri ematen da. Kreditu txertaketa honen guztizkoa 1.222.468,64 euroakoa da eta 2006ko likidazioari Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenaren azken orrian azaltzen den zerrendako partidek osatzen dute. Kreditu aldaketa honen finantzaketarako erabilitako iturriak honako hauek dira: diruzaintzako gerakin likidoa, 822.468,64 euro, eta Areria eraikinaren eraikuntzarako Diputazioak agindutako 400.000 euro, 2006ko aurrekontuan aurrikusita zeudenak baina gauzatu gabe gelditu zirenez aurrekontu hartan ezabatutakoak.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

VI.- 2007KO AURREKONTUARI EGINDAKO KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 1 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Serna zinegotziak (PSE) esaten du Plazako urbanizazioaren aurrekontua hasieratik oraingo guztizkoa izango balitz esleipen modua beste bat izango litzakela eta hori horrela izatearen zirkunstantziak kreditu aldaketa honen aurka bozkatzera daramala.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta aldeko 8 botu (EAJ, PP) eta aurkako botu batz (PSOE), honako hau

ERABAKI DA

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 1 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapituluko laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
IV VI	Transferentzia arruntak Inbertsio errealak	60.000,- € 340.000,- €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		400.000,00 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
IX	Finantza pasiboak	400.000,00 €
GUZTIRA		400.000,00 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

VII.- LAZKAO LANTZEN, S.A.REN 2003KO KONTUAK.-

Alkateak esaten du Lazkao Lantzen, S.A. 2003ko abenduaren 30ean sortu zela eta hau horrela izanik 2003 urtean inolako jarduerarik ez zuela izan. Hau honela, 2003 urteko konturik egitea ez zela beharrezko izango jo zen baina Merkataritza Erregistroan bestelako esan du. Horregatik Lazkao Lantzen, S.A.ren Administrazio Kontseiluak, 2007ko martxoaren 7an egindako bilkuran, 2003ko kontuak onartu eta Osoko Bilkura honen aurrera aurkeztea erabaki zuen, bere onarpenerako.

Honen aurrean eta Lazkao Lantzen, S.A.ren 2003ko kontuak aztertu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, kontu hauek onartzea erabakitzen du.

VIII.- ARERIA ERAIKINA ERAIKUNTZA LANEN 4. ZERTIFIKAZIOA.-

Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen obra zuzendaritza daraman Jose Manuel Elizegi Sarobe arkitektoak lanen 4. zertifikazioa luzatu du. Laugarren zertifikazio honen zenbatekoa HIRUROGEITA HEMERETZI MILA EHUN ETA HIRUROGEITA ZORTZI EURO eta LAUROGEITA BEDERATZI ZENTIMOtakoa (79.168,89 €) da. Lan hauek ARERIA Aldi Baterako Enpresa-Elkartea ari da burutzen.

Udal teknikariak zertifikazioa aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen laugarren zertifikazioa onartzea erabakitzen du.

IX.- SAN PRUDENTZIO ERMITA INGURUKO URBANIZAZIO PROIEKTUAREN 5. ZERTIFIKAZIOA (LIKIDAZIOA).-

San Prudentzio Ermita inguruko urbanizazio lanen obra zuzendaritza daraman Iñaki Laskurain Gisasola ingineruak (INJELAN, S.L.) lanen bosgarren eta likidazioa den zertifikazioa luzatu du. Bosgarren zertifikazio honen zenbatekoa ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMALAU MILA LAUEHUN ETA LAUROGEITA SEI EURO eta LAU ZENTIMOtakoa (774.486,04 €) da. Lan hauek CONSTRUCCIONES DONOSTI, S.A. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak zertifikazioa aztertu eta bere oneritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, San Prudentzio Ermita inguruko urbanizazio lanen bosgarren eta likidazioa den zertifikazioa onartzea erabakitzen du.

X.- 10-12 H.A.KO B.E.B.E.AREN BEHIN BEHINEKO ONARPENA.-

Indarrean dauden Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 10-12 Hirigintz Areako Barne Erreformako Berariazko Eraldakuntza izapidatzen ari da udal hau. Izapidatze horren barruan, Udal Osoko Bilkura honek, 2006ko ekainaren 29an egindako batzaraldian, B.E.B.E.ari behin behineko onarpena eman zion.

Onarpen hori eman ondoren eta espedientean Gipuzkoako Errepide eta Biden Foru Arauaren Testu Bateratuak, bere 94. artikuluan aurrikusten duen txostena ez zela eskatu kontutan izanda, txosten hori eskatu zen. Eskari horren ondorioz, Errepideetako Departamentuak 2006ko urriaren 31 datan bere txostena egin zuen, eta bertan dokumentuari hainbat aldaketa eta baldintza ezartzen zitzaizkion.

B.E.B.E. dokumentuan Errepide Departamentuak eskatzen zituen aldaketak sartuz dokumentazio osagarria prestatu zen eta Errepide Departamentura bidali eta oraingoan, 2007ko otsailaren 13 datan, aldeko txostena eman zuen, baldintza pare bat eartzen badi-tu ere.

Hau honela, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin (EAJ, PSOE, PP), honako akordioak hartzen ditu:

1.- Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 10-12 Hirigintz Areako Barne Erreformako Berariazko Eraldakuntzari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Departamentuaren txostenaren ondorioz sartutako aldaketak txertatu ondoren, behin behineko onarpena ematea.

2.- Espedientea Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, honen behin betiko onarpenari buruz ebatzi dezan.

XI.- TELEASISTENTZIA ARAUTZEKO UDAL ARAUTEGIA.-

Teleasistentzia zerbitzuaren helburua arrisku, babesik eza, mendekotasun edota urritasuna duten pertsonak beren etxean jarraitzea da, beren eskaerari erantzunez eta beren autonomia eta segurtasuna indartuz. Gizarte izaera duen zerbitzu tekniko honek erabiltzaileak larrialdien arretarako zerbitzuekin lotzen ditu, esparru horretan dauden komunitate baliabideak mugiaraziz.

2001.eko uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuak, gizarte zerbitzuei dagozkien eginkizunak zehaztekoak, lehenengo paragrafoaren 4.1.2. eta 3. artikuluetan ezarritakoari jarraiki, teleasistentzia udal eskumeneko zerbitzu bat da. Beraz, bidezkoa da zerbitzua arautzea Toki Erregimeneko Oinarriak onartzeko 1985.eko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1.a) artikuluan aurreikusitakoa betez, Osoko Bilkura honen aurrera aurkeztzen den erregelamendu hau onartuz.

Olaso zinegotziak (PP) arautegia itxita dagoen ala aldaketak sartzeara posible den galdetzen du.

Alkateak erantzuten dio esanez Arautegi hau Gipuzkoa mailan udal guztietan onartzea planteatzen dela eta alderdi guztien artean adostutakoa dela eta ez lukeela zentzurik Lazkaon testuari aldaketak sartzeara eta ez duela egokia ikusten.

Hau honela eta Gizarte Zerbitzuetako Batzordearen proposamenaren aurrean, Udal Osoko Bilkurak, aldeko zortzi botu (EAJ, PSOE), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PP), honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Teleasistentzia zerbitzua arautzen duen udal arautegia, bere espedientean dagoena, hasierakoz onartzea.
- 2.- Arautegia jendaurreko erakustaldian jartzea hogeitahamar lanegunetako epean, interesatuek egoki deritzoten erreklamazioak aurkez ahal ditzaten.
- 3.- Jendaurreko erakustaldian inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, hasierako akordioa behin betikotzat bihurtua joko da akordio espreso berri baten beharrik gabe.

XII.- TELEASISTENTZIA ZERBITZUA EMATEKO FORU ALDUNDIAREN HITZARMENA.-

Jarraian eta aurreko puntuan tratatutako gaiaren lotura duelarik, Teleasistentzia Zerbitzua emateko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzara hitzarmena izenpetzea planteatzen da.

Hitzarmen honen xedea teleasistentzia zerbitzuaren kudeaketarako akordio bat gauzatzea da, eta, udal eskumenen esparruan jasotzen bada ere, beren ezaugarri teknikoak direla eta, gomendagarria da Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzea, 1996.eko urriaren 18ko 5/1996 Legeak, gizarte zerbitzuetakoak, 14. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Hitzarmen hau bere espedientean aurkitzen da.

Hau honela eta Gizarte Zerbitzuetako Batzordearen proposamenaren aurrean, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin Teleasistentzia Zerbitzua emateko hitzarmena, bere espedientean aurkitzen dena, onartzea.
- 2.- Alkatea ahalmentzea udalaren izenean hitzarmen hau izenpetu dezan.

XIII.- UDALHITZEN 2007KO EGUNERAKETA.-

Udal langileen lan baldintzen inguruan 2005, 2006 eta 2007 urteetarako hitzarmena izenpetu zen erakundeen eta sindikatuen artean 2006ko martxoaren 9an, UDALHITZ izenez ezagutzen dena. Gero Udal honek ere onartu egin zuen UDALHITZ.

UDALHITZen inguruan eta 2007ko soldateei dagokienez, EUDELetik idatzi bat jaso da. Idatzi horretan esaten da 2006ko K.P.I. %2,7koa izan dela, 2005 urtekoa baino txikiagoa, hau %3,7koa izan bai zen, eta beraz UDALHITZ akordioen arabera soldatak %4an igotzea dagokiola.

Honen aurrean, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, udal langileen soldatak 2007ko urtarrilaren 1 datatik %4ean igotzea erabakitzen du.

XIV.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du orain urte batzu zinegotzi izandakoei domina ematearen ohiturari eman zitzaiola hasiera eta hauteskundean gainean ditugarik gogorarazi egin nahi duela.

XV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko 9ak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dularik.